



2016ko maiatzak 23

## **CAF-EK 400 MILIOI EURO BAINO GEHIAGOKO ZENBATEKOA DUTEN KONTRATUAK SINATU DITU**

### **CAF ERRESUMA BATUKO MERKATUAN SENDOTU EGIN DA FIRST GROUP OPERADOREARENTZAKO KONTRATU BERRIEN ESLEIPENA LORTUTA**

CAFek First Group operadorearekin eta Eversholt Rail Group eta Beacon Rail finantza-enpresekin kontratuak sinatu ditu. Horien bidez, CIVITY UK plataformako 5 kotxeko 12 unitate elektriko eta bidaiarien 66 kotxe hornitzeko eta mantentzeko lanak eskuratu ditu. Enpresak Ingalaterrako iparraldeko eskualdeko TransPennine frankiziarako lanak ditu esleituta.

CAFek First Group operadorearekiko duen konpromiso maila epe luzerakoa izango da, lankidetzaren frankiziaren eragiketa-amaierara arte mantenduko baita, 2023ra arte, trenetako bi plataformetarako ordezkoen kudeaketa integrala eta mantentze-lanetarako euskarri teknikoaren zerbitzua eskainita. Hornitzeko eta mantentze-lanetarako eragiketen zenbatekoak 310 milioi euro inguruko kontratazioa dakarte.

Kontratu berri horiek Erresuma Batuan bertan urtarrilean konpainiak sinatutakoei gehitu behar zaizkie, 740 milioi euroko zenbatekoarekin Arriva Rail North Limited operadorearekin eta Eversholt Rail Group finantza-enpresarekin, 43 tren elektriko eta 55 diesel trenetako bi flota egiteko, horiek ere CIVITY plataformakoak, Northern eskualderako (Ingalaterra iparraldea).

Beraz, CAFek plataforma horren bidez unitate berriak hornituko ditu. Unitate horiek azken aurrerapen teknologikoak izango dituzte, eskualdeko zerbitzuaren baldintzak hobetzeko eta frankiziak iraungo duen aldiaren operadoreekin lankidetzan jardungo du, bidaiarientzat zerbitzuaren kalitate maila onenak lortzeko.

### **CAFen konpromisoa Erresuma Batuan trenbide-sektorea garatzeko**

FIRST GROUP eta ARRIVA UK operadoreekin adostu berri diren esleipen horiek urrats erabakigarria eragin dute Erresuma Batuko trenbide-sektorean CAF sendotzeko estrategian, 90eko hamarkadan herrialdean sinatutako lehen proiektuarekin hasitakoaren ildotik.

Merkatu honen aldeko apustu sendoa baieztatuz, eta prozesu honen giltzarri izanik, CAFek instalazio berriak egokituta herrialdean ezartzea aurrez ikusi du, bertan muntaketa-lanak eta unitateen probak, eta mantentze-lanak egin ahal izateko.

Era berean, CAFek ordezkioak Hornitzeko eta Kudeatzeko Zentro Logistikoa ezartzea aurrez ikusi du, trenen mantentze-lanetako zerbitzua exekutatzeko zentroetan tresnak eta osagaiak hornitzeko beharrezko materialen kudeaketa zentralizatzeke.

Instalazio berrietan egingo diren jarduerak nahiz bezeroen tailerretan egingo direnek Bulego Nagusi berrien euskarri-zerbitzuak izango dituzte. Bulego horiek Northern sarearen puntu estrategikoan egongo dira eta langile tekniko eta kudeaketako langileen kontratazioa egingo da, eta bertatik zerbitzuak eskainiko dira zenbait arlotan: Ingeniaritza-euskarriak, Erosketen kudeaketa, Informazio

Sistemak, Kalitatea eta Giza Baliabideak. Datozen hilabeteetan ezarpen horien xehetasun gehiago ezagutuko dira.

## **CAF Erresuma Batuan**

Azken urteotan, CAFek presentzia handia izan du Erresuma Batuan eta ibilgailuen eta zerbitzuen gama zabala jarri du abian. 90eko hamarkadan, enpresak unitateak hornitu zituen eskualde bereko Northern Spirit linearako eta aireportua Londreseko Paddington geltokiarekin lotzen duen Heathrow Express konexiorako. Gerora, 2002an eta, ondoren, 2008an, NIRerako (Ipar Irlandako Trenbideak) proiektuak garatu dira, eta trenen fabrikazioa egiteaz gain, enpresak 15 urteko aldirako mantentze-lanen zerbitzua eskaintzen du. Tranbien familian, CAFek Edinburgo eta Birmingham hirietarako tranbiak hornitu ditu. Azkenik, joan den urtean, CAFek 200 milioi euro inguruko balioa duen kontratua sinatu zuen Caledonian Sleeperren kotxeak hornitzeko. Londres eta Glasgow-Edinburgh arteko zerbitzua egiten du eta horien entregak 2018. urterako aurrez ikusi dituzte.

Erresuma Batua da gaur egun kontinenteko trenbide-merkatu aktiboenetakoa eta lehiakorrenetakoa; datozen hilabete eta urteetan, trenbide-frankizien berritze-prozesu ugari egitea aurrez ikusi dute, eta CAFek parte hartuko duela espero du. Gainera, CAF gaur egun aurrekalifikatuta dago Londreseko Metrorako lehiaketarako, eta HS2 abiadura handiko linearako hurrengo lizitaziorako interesa ere berretsita dago. Linea horrek Londres eta Birmingham hiriak lotuko ditu lehen fasean, eta Europan datozen urteetarako aurrez ikusitako azpiegitura-proiektu handienetakoa da.

## **PROIEKTU BERRIA AUSTRALIAN**

Joan den astean CAFek Canberrako Metro Partzuergoko kide gisa, 20 urtez 14 tranbia hornitzeko eta mantentzeko kontratua formalizatu zuen, Australiako hiribururako tren arineko linea berria eraikitzea biltzen duen proiektuaren baitan.

Tranbia hauek URBOS tranbien familiakoak dira eta estetika modernoa azken belaunaldiko ekipamenduarekin eta irisgarritasun handienarekin bateratzen dute, erosotasuna, errendimendua eta eragiteko erraztasuna zein mantentze-lanak bigarren mailara pasatu gabe. Plataforma horretako ibilgailuak badabiltza dagoeneko zenbait herrialdetan: Alemania, Brasil, Estatu Batuak, Frantzia, Erresuma Batua, Hungaria, Serbia, Suedia eta Taiwan.

Kontratu honen guztizko zenbatekoa 100 milioi euro baino gehiagokoa da.